

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA (2. pieza)

Zein da zure bezeroa?

Gure bezeroa diskotekara joaten den jendea da, dibertitzeko eta dantzatzeko leku bat bilatzen duena, baina aldi berean, ingurumenarekiko errespetua duena, eta dantzatzen duen bitartean energia berriztagarria sortzea ideia ona iruditzen zaiona.

Zein dira bezeroen ezaugarriak?

- Zein dira?:
 - Adina: gazte eta heldu gazteak (18-35 urte).
 - Denbora librean gastatzeko nahikoa diru dutenak.
 - Zer gustatzen zaie?:
 - Ingurumena zaintzea.
 - Teknologia erabiltzea.
 - Ondo pasatzea, dantzatzea eta festa.
 - Nola jokatzen dute?:
 - Diskotekara askotan joaten dira.
 - Mugikorra kargatzeko aukera gustatzen zaie.
 - Garraio jasangarria erabiltzen dute (deskontua lortzeko).
-

Merkatu mota:

Gure diskotekak nitxozko merkatu eta merkatu segmentatua du:

- Nitxozko merkatu:
 - Ingurumenarekiko kontzientzia duten gazteei zuzenduta.
- Merkatu segmentatua:
 - Diskotekara joaten diren gazte eta helduen segmentuak (taldeak) bereizi daitezke, adina eta ohiturak kontuan hartuta.

Merkatu masiboa ez da egokia, ideia oso berezia delako. Ez da merkatu edo plataforma handi bat, izan ere, pertsona bakoitzak zuzenean parte hartzen du energia sortzeko.